

Nota de prensa



IVF Donostiak Lynch Syndrome gabeko lehen jaiotza lortu du

- Herentziako baldintza hau kasuen % 50ean transmititzen da, eta koloneko minbizia pairatzeko probabilitatea areagotzen du.
- Ugalkortasunaren Euskal Institutuaren lanari esker, Onkologikoak aurrerapauso bat eman du herentziako minbiziaren prebentzioan.

Donostia, 2016ko abuztuaren 4a. Lynch Sindromea gabeko lehen umeak jaio dira Onkologikoan dagoen IVF Donostiak zentroan gauzatu den DGP teknikari, ezarpenaren aurreko analisi genetikari, esker. Lehenengo aldia da Gipuzkoan Sindrome hori gabeko haurdunaldi bat lortzen dela. Jaiotze hau IVF Donostia eta Onkologikoak herentziako minbiziaren prebentzioan egiten ari diren lanaren beste adibideetako bat da. Izan ere, diagnostikatzen diren kolon eta ondesteko minbizien % 2 eta % 7 Lynch Sindromea duten gaixotan ematen da. Herentziako gaixotasun honek % 50eko transmisio probabilitatea du, nahiz eta norbanakoak ez du zertan gaixotasuna garatu. Honez gain, Lynch Sindromeak 20 urtean murrizten du minbiziaren agerpena gaixotasuna duten gizonetan: batez beste 64 urtetik 44ra.

IVF Donostiako zuzendaria den Yosu Franco doktoreak azaldu duen bezala, "Sindromea ez duten lehen ume osasuntsuen jaiotza ezarpenaren aurreko analisi genetikari esker izan da. Teknika horrek mutazioaz aske diren enbrioiak hautatzeko aukera eskaintzen du, herentziako gaixotasunarekin amaituz eta bere agerpen posiblea saihestuz." Izan ere, laguntza bidezko ugalkortasunari esker, horrelako gauzak egitea ere posible da, nahiz eta antzutasunarekin estuki harremanak egon. Ikerketan aurrerapen etengabeekin, batez ere genetikaren alorrean, lagunduriko ugalkortasunak umeak izateko zailtasunak dituzten pertsonen laguntzen die baina baita ugalkortasunarekin inolako arazorik ez dutenei ere, besteak beste, herentziako gaixotasunak saihestuz.

Lagunduriko ugalketak eskaintzen duen beste aukeretako bat ugalkortasunaren babesa da. IVF Donostiak Onkologikoan atak zabaltzen zituenetik zerbitzu hori doan eskaintzen die kimioterapia edo erradioterapia tratamendua jaso behar gaixo onkologikoei, izan ere bi tratamenduek pertsonen ugalkortasuna arriskuan jarri dezakete.